

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak Unibertsitate Publikoko errektorea eta Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakaria bisitatu ditu

Nafarroako Lehendakariak bere aginte-hasierako bisita instituzionalak egiten jarraitu du, eta NUPera eta NJANera joan da

Jueves, 21 de julio de 2011

Nafarroako Lehendakariak, Yolanda Barcinak, aginte-hasierako bisita instituzionalak egiten jarraitu du ostegun honetan, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan eta Justizia Auzitegi Nagusian izan da.

11:00etan, Barcina Lehendakaria Arrosadiko campusean hartu du Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorea den Julio Lafuentek.

Lehendakariak eta errektoreak mintzagai izan dituzte Finantzaketaren Urtetik Urterako Plana egiterakoan izandako aurrerapenak (NUP plan horrekin hornituko da) nahiz Iberus Bikaintasun Campusaren esparruan bultzatutako proiektuak, NUPEkin Zaragoza, Errioxa eta Leridako Unibertsitateek partekatzen dituztenak.

Eguerdiko 12:00etan, Yolanda Barcina Justizia Jauregira joan da, eta han Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakaria den Juan Manuel Fernándezek harrera egin dio.

Barcina Lehendakariak eta Juan Manuel Fernándezek Justizia Jauregia handitzeko goiko aldean gehitutako bulegoak bisitatu dituzte, eta Tuterako Epaitegien eraikin berria eraikitzeko lanak erritmo onean egiten ari direla aipatu dute; eraikina abian jarri ahal izango da urtea amaitu baino lehen.

Ostiralean, Lehendakariak bisiten txanda egiten jarraituko du, eta,



Lafuente eta Barcina Nafarroako Unibertsitate Publikoan



Barcina eta Fernández Justizia Jauregian

lehendabizi, Nafarroako Komandantzia Militarera joango da; han, José Ignacio González Arteaga komandante militar nagusiak hartuko du. Bigarren, Iruñeko Udalera joango da, eta Enrique Maya alkateak egingo dio harrera.